

2/2022 Ebazpena, martxoaren 8koa.

RESOLUCIÓN 2/2022, de 8 de marzo.

BATZORDEBURUA: María Barrena Ezcurra.

PRESIDENTA: María Barrena Ezcurra.

KIDEA: César Alonso Campo.

VOCAL: César Alonso Campo.

IDAZKARIA: Iñigo Alvear Lekue.

SECRETARIO: Iñigo Alvear Lekue.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzordeak, lehen aipatutako kideek osatuta, **EBAZPEN** hau eman du

jaunak informazio publikoa eskuratzeko eskaera ez onartzearen aurka egindako erreklamazioaren aurrean. Ebazpena Bizkaiko Foru Ogasuneko zuzendari nagusiak 2021eko abenduaren 23an erabaki zuen. César Alonso Campo jaunak jardun du hizlari, eta Batzordearen iritzia adierazi du:

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha dictado la siguiente **RESOLUCIÓN** ante la reclamación formulada por

, contra la inadmisión de su solicitud de acceso a información pública, acordada por el Director General de la Hacienda Foral de Bizkaia el 23 de diciembre de 2021. Actúa como ponente Don César Alonso Campo, quien expresa el parecer de la Comisión

AURREKARIAK

LEHENA. 2021eko abenduaren 8an, jaunak informazio publikoa eskuratzeko eskaera hau aurkeztu zion Bizkaiko Foru Aldundiari:

“Mesedez, honako honi buruzko informazio guztia eskatzen dut (sic); izan ere, OHZren ordainagirian jasotako Erandioko estolderia-zerbitzuaren tasa kobratu da, Aldundiak

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO. En fecha 8 de diciembre de 2021 presentó la siguiente solicitud de acceso a información pública, dirigida a la Diputación Foral de Bizkaia:

“Por favor solicito toda la información sobre porque (sic) se ha cobrado la tasa del servicio de alcantarillado de Erandio incluida en el recibo del IBI, si la Diputación no tenía la



Erandioko Osoko Bilkuraren baimenik ez bazuen ere, Udalak eta Aldundiak 1990eko apirilaren 9an 2020, 2019, 2018, 2017 eta 2016 urteetan sinatutako lankidetzahitzarmenean adierazten den bezala”.

autorización del Pleno de Erandio tal como indica el Convenio de colaboración firmado entre el Ayuntamiento y Diputación el 9 de abril de 1990, en los años 2020, 2019, 2018, 2017 y 2016.”

Horrez gain, honako arrazoi hauek aipatu zituen:

Adicionalmente, reseñaba la siguiente motivación:

“Irregularitasun bat da, iruzurtzat har daitekeena, baldin eta (sic) baimen hori ez badago, eta de facto (sic) herritarrei baimenik gabe kobratutako zerbait itzuli beharko litzaieke. Informazio-eskaera hori Bizkaiko Foru Aldundiari egiten zaio, hark bete baitu egintza. Gainera, hori egiteagatik komisio bat kobratzen zien Erandioko herritarrei”.

“Es una irregularidad que se puede considerar fraude sino (sic) existe tal autorización, y de facto se debería de (sic) devolver a los ciudadanos algo cobrado sin autorización. Esta solicitud de información se realiza al ente Diputación de Bizkaia, porque es quien ha realizado el acto. Que además cobraba por realizarlo, a los ciudadanos de Erandio una comisión.”

BIGARRENA. Aurreko eskaera ez zen onartua izan Bizkaiko Foru Ogasuneko zuzendari nagusiaren 2021eko abenduaren 23ko ebazpenaren bidez, honako arrazoi hauek tarteko:

SEGUNDO. La solicitud fue inadmitida por resolución del Director General de la Hacienda Foral de Bizkaia, de 23 de diciembre de 2021 con la siguiente motivación:

“LEHENENGOA.- Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 18. artikulua pertsona fisiko eta juridikoek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea aitortzen du, aipatutako foru-arauean eta gaiari buruzko legeria orokorrean ezarritako baldintzetan.

“PRIMERO.- El artículo 18 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, reconoce el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, en los términos establecidos en dicha Norma Foral y en la legislación general sobre la materia.

BIGARRENA.- Ondorio horietarako, aipatutako Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 17.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, informazio publikotzat hartzen da bere aplikazio-eremuan aurreikusitako erakundeen esku dagoen edozein eduki edo dokumentu mota, erabiltzen den euskarria edozein dela ere, baldin eta erakunde horiek beren eginkizunak betez egin, aldatu edo eskuratu badute.

SEGUNDO.- A estos efectos, de conformidad con lo previsto en el artículo 17.2 de la citada Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, se entiende por información pública cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en su ámbito de aplicación, y que haya sido elaborado, modificado o adquirido por ellas en el ejercicio de sus funciones.



Beraz, lehendik dagoen informazioa da, eta eskaera jasotzen duen administrazioaren esku dago, bai eskaera berak egin duelako, bai esleituta dituen eskumenak erabiliz lortu duelako.

Se trata, por lo tanto, de información que ya existe, y que obra en poder de la Administración que recibe la solicitud, bien porque la ha elaborado ella misma, o bien porque la ha obtenido en el ejercicio de las competencias que tiene encomendadas.

HIRUGARRENA.- Horrenbestez, hemen interesatzen zaigunari dagokionez, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22 c) artikulua adierazten du ez direla izapidetzeko onartuko informazio publikoa eskuratzeko eskaerak, baldin eta informazio hori zabaltzeko aurretiazko ekintza bat edo berregiteko prozesu bat behar bada. Baldintza hori betetzen dela ulertuko da eskatutako informazioa erantzun bat emateko espresuki sortu edo landu behar denean, hainbat informazio-iturriren bidez, edo informazio hori ateratzeko eta ustiatzeko beharrezko baliabide teknikorik ez dagoenean; izan ere, Administrazioak, partikularrek eskatuta, ez du txostenak egiteko eskubiderik.

TERCERO.- Consecuentemente, en lo que aquí interesa, el artículo 22 c) de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, señala que cabe inadmitir a trámite las solicitudes de acceso a información pública cuya divulgación requiera una acción previa o un proceso de reelaboración, entendiéndose que se da esta condición cuando la información solicitada tenga que ser producida o elaborada expresamente para dar una respuesta, mediante el uso de distintas fuentes de información, o cuando se carezca de los medios técnicos necesarios para extraer y explotar dicha información, toda vez que no estamos ante un derecho a la elaboración de informes por parte de la Administración a petición de los particulares.

Gainera, informazio publikoa eskuratzea ere ez da nahastu behar zergadunek zuzenbidearekin bat ez datozen administrazio-egintzen aurka errekurtsioa aurkezteko duten eskubidearekin. Beraz, informazio publikoa eskuratzeko eskaerak ezin dira erabili egintza horien aurka egiteko.

Además, el acceso a la información pública tampoco debe ser confundido con el derecho que tienen las y los contribuyentes a presentar recurso contra los actos administrativos que entiendan no ajustados a derecho. De modo que las solicitudes de acceso a la información pública no pueden ser utilizadas para impugnar dichos actos.

LAUGARENA.- Bestalde, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarrian honako hau zehazten da:

CUARTO.- Por otro lado, la disposición adicional tercera de la citada Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, concreta que:

“Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren bidez onarturiko Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 41. artikuluan eta maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onarturiko Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitakoaren arabera, foru arau honetan ezarritakoa ez da aplikagarria izango Zerga Administrazioak bere eginkizunak

“De conformidad con lo previsto en el artículo 41 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, aprobado por medio de la Ley Orgánica 3/1979, de 18 de diciembre, y en el Concerto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por medio de la Ley 12/2002, de 23 de mayo, lo dispuesto en esta Norma Foral no será aplicable en relación con



betetzean lortutako datuei, txostenei edo aurrekariei dagokienez; horiek Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan eta horren garapen-xedapenetan ezarritakoaren arabera arautuko dira”.

BOSGARRENA.- Gaiari eutsiz, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren 94. artikuluan Zerga Administrazioak bere eginkizunak betetzean lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak isilpekoak direla ezartzen da. Datu, txosten edo aurrekari horiek ezin zaizkie hirugarrenei laga edo jakinarazi, salbu eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorren 94 bis eta 94 ter artikuluetan jasotako tasaturiko kasuetan (horietako bat ere ez da aplikagarria kasu honetan).

SEIGARRENA.- Kasu honetan, jaunak informazioa eskatu du Bizkaiko Foru Aldundiak Erandioko Udalaren estolderia-zerbitzua emateagatik tasa 2016., 2017., 2018., 2019. eta 2020. ekitaldietan kobratzeko arrazoiari buruz, baldin eta Bizkaiko Foru Aldundiak eta Erandioko Udalak 1990eko apirilaren 9an estolderiaren udal-tasa biltzeko zerbitzua emateko sinatutako hitzarmenaren bosgarren klausulan aipatzen den osoko bilkuraren baimenik ez bazuen, horri dagokionez, honako hau adierazi behar da:

a) Interesdunak gaiari buruzko txosten juridikoa eskatu nahi izanez gero, bidezkoa dela eskaera ez onartzea, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 17.2 eta 22 c) artikuluek berariaz azaldutakoari jarraikiz, informazio publikoa eskuratzeko eskubideak edozein eduki edo dokumenturi, euskarria edozein dela ere, eragiten baitio, informazioa eskatzen zaien erakundeek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu

los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria en el desempeño de sus funciones que se registrarán por lo dispuesto en la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia y en sus disposiciones de desarrollo”.

QUINTO.- A este respecto, el artículo 94 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, establece el carácter reservado de los datos, informes o antecedentes obtenidos por la Administración tributaria en el desempeño de sus funciones, los cuales no pueden ser cedidos o comunicados a terceros, salvo en los supuestos tasados recogidos en dicho artículo, y en los artículos 94 bis y 94 ter de la misma Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, ninguno de los cuales resulta de aplicación al caso.

SEXTO.- En el presente supuesto, solicita información sobre el motivo por el cual la Diputación Foral de Bizkaia cobró la tasa por la prestación del servicio de alcantarillado del Ayuntamiento de Erandio, en los ejercicios 2016, 2017, 2018, 2019 y 2020, si no tenía la autorización del Pleno a que se refiere la cláusula quinta del Convenio suscrito entre la Diputación Foral de Bizkaia y el Ayuntamiento de Erandio para la prestación del servicio de recaudación de la tasa municipal de alcantarillado, de 9 de abril de 1990, en relación con lo cual, debe indicarse:

a) Que, si lo que solicita el interesado es un informe jurídico sobre el particular, procede inadmitir dicha petición, ya que, tal y como expresamente señalan los, ya mencionados, artículos 17.2 y 22 c) de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, el derecho de acceso a la información pública afecta a cualquier tipo de contenido o documento, con independencia del soporte en el que se encuentre, que obre en poder de la



badituzte eduki edo dokumentuok, baina ez dela aldeak eskatutako txosten juridikoak egiteari zabaltzen, eta ez dela nahasi behar administrazio-egintzen aurka errekurtsioa jartzeko zergadunen eskubidearekin, betiere zuzenbidearekin bat ez datorrela uste badute.

Administración requerida, y que haya sido elaborado, modificado o adquirido por ella en el ejercicio de sus funciones, pero no se extiende a la elaboración de informes jurídicos a instancia de parte, ni puede ser confundido con el derecho que tienen las y los contribuyentes a presentar recurso contra los actos administrativos que entiendan no ajustados a derecho.

b) Bien bitartean, interesdunak administrazioaren esku dagoen gaiari buruzko informazioa (ekitaldi bakoitzean Erandioko Udalak multzokatuta jakinarazitako estolderiagatikoko tasaren likidazioak) eskatuz gero, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 100.3 artikulua eta Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 27.4 artikulua xedatutakoaren arabera, bere egunean errekurtsioa jartzeko aukera izan zuten, baina isilpeko informazioa da, eta ezin zaie hirugarrenei laga edo jakinarazi Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 94, 94 bis eta 94 ter artikuluetan aipatzen diren ustezko tasatuak betetzen ez badira. Aztergai dugun honetan, ordea, ez dira aplikagarriak.

b) Mientras que, si lo que solicita el interesado es la información que sí obra en poder de esta Administración, consistente en las liquidaciones de la tasa de alcantarillado notificadas colectivamente por el Ayuntamiento de Erandio en cada ejercicio, según lo previsto en el artículo 100.3 de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y en el artículo 27.4 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, contra las que, en su momento, pudieron interponerse los recursos correspondientes, debe indicarse que se trata de información de carácter reservado, que únicamente puede ser cedida o comunicada a terceros en los supuestos tasados a los que se refieren los artículos 94, 94 bis y 94 ter de la Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, ninguno de los cuales resulta de aplicación al caso.

Hori guztia dela eta, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauan ezarri dena betez eta Zuzendaritza Nagusi honi dagozkion eskumenak baliatuz

Por todo ello, en cumplimiento de lo previsto en la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, y en el ejercicio de las facultades que corresponden a esta Dirección General

EBATZI DUT:

RESUELVO

LEHENENGOA.- EZ ONARTZEA
jaunak
publikoa eskuratzeko
aurkeztutako eskaera.

PRIMERO.- INADMITIR la solicitud de acceso a información pública presentada por



HIRUGARRENA. -

jaunak, aurreko ebazpenaren aurka, Bizkaiko Foru Aldundiko zuzendari nagusiak emandako aurreko ebazpenaren aurkako erreklamazioa aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitzaren bitartez, 2022ko urtarrilaren 21ean. Idazkia Batzorde honetan jaso zen, eta 1/22 zenbakia esleitu zitzaion.

LAUGARRENA.

Aurkeztutako erreklamazioaren arrazoiketan, errekurtsogileak bere garaian informazio publikoa eskuratzeko aurkeztutako eskaeraren edukia errepikatzen du; honako hau dio hitzez hitz:

“Mesedez, honako honi buruzko informazio guztia eskatzen dut (sic); izan ere, OHZren ordainagirian jasotako Erandioko estolderia-zerbitzuaren tasa kobratu da, Aldundiak Erandioko Osoko Bilkuraren baimenik ez bazuen ere, Udalak eta Aldundiak 1990eko apirilaren 9an 2020, 2019, 2018, 2017 eta 2016 urteetan sinatutako lankidetza-hitzarmenean adierazten den bezala”.

BOSTGARRENA.

Batzorde honek erreklamazioaren edukari buruzko txostena egiteko eskatu zion Ogasun eta Finantza Sailari.

2022ko otsailaren 10ean, Foru Ogasuneko zuzendariak eskatutako txostena bidali zion Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzorde honi. Txosten horretan, bere erabakia berresten zen, eta aplikagarritzat jotzen zituen araudiaren eta jurisprudentzia-erabakien azterketa zabal batean oinarritzen zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA. Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikulua bidez sortu zen Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea.

Foru Arau horren 29.1.1. artikulua

TERCERO. - Contra la resolución anterior

presentó 21 de enero de 2022, a través de la sede de la Diputación Foral de Bizkaia, reclamación contra la anterior resolución dictada por el director general de la Hacienda Foral de Bizkaia. El escrito se recibió en esta Comisión, que le asignó el número 1/22.

CUARTO. En la motivación de la reclamación presentada el recurrente reproduce el contenido de la solicitud de acceso a la información pública presentada en su día, con el siguiente literal:

“Por favor solicito toda la información sobre porque (sic) se ha cobrado la tasa del servicio de alcantarillado de Erandio incluida en el recibo del IBI, si la Diputación no tenía la autorización del Pleno de Erandio tal como indica el Convenio de colaboración firmado entre el Ayuntamiento y Diputación el 9 de abril de 1990, en los años 2020, 2019, 2018, 2017 y 2016.”

QUINTO. Esta Comisión solicitó al Departamento de Hacienda y Finanzas, la emisión de informe en relación con el contenido de la reclamación formulada.

El 10 de febrero de 2022, el director general de Hacienda Foral remitió a esta Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia el informe solicitado, en el que se reafirmaba en su decisión, fundamentándola en un extenso análisis de la normativa y los pronunciamientos jurisprudenciales que consideraba aplicables.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

PRIMERO. La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en



arabera, 2. artikuluekin lotuta, Erreklamazioen Batzordea izango da Bizkaiko Foru Aldundiko, foru-organismo autonomoetako, foruko enpresa-erakunde publikoetako, foruko merkataritza-sozietateetako, foru-fundazioetako, foru-partzuegoetako eta zuzenbide publikoko beste foru-erakunde batzuetako (lehen aipatutakoez gain) informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ezesten denean aurkezten diren erreklamazioak ebazteko eskumenduna.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren Inguruko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren bidez onartuak, 18. artikuluan ezartzen du Batzordearen Osoko Bilkuraren eskumena dela, besteak beste, honako hau: "*a) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzea tazituki zein espresuki ukatzea dela- eta aurkezten diren erreklamazioak ebaztea, 1/2016 Foru Arauan ezarritakoaren arabera.*"

BIGARRENA. Instantzia honetan, erreklamazioegileak bere garaian Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailean egindako informazio-eskaera errepikatu besterik ez du egiten, erreklamazioaren oinarri izan zitekeen arau-agindurik aipatu gabe.

HIRUGARRENA. Lehen aipatutako otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak 18.1. artikuluan aitortzen du pertsona fisiko eta juridikoek eskubidea dutela informazio publikoa eskuratzeko. Informazio publikoa, Foru Arau beraren 17.2 artikuluen arabera, honako hau da: "(...) *foru arau honen aplikazio-eremuan sartutako erakundeek duten edozein eduki edo dokumentu, euskarria edozein dela ere, erakunde horiek beren eginkizunen barruan egin, aldatu edo eskuratu badituzte eduki edo dokumentuok (...)*".

relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

Por su parte, el Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, establece en su artículo 18 que, entre otras, es competencia del Pleno de la Comisión: "*a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016.*"

SEGUNDO. En la presente instancia el reclamante se limita a reiterar la solicitud de información formulada en su día ante el Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia, sin referencia a precepto normativo alguno que pudiera sustentar la reclamación.

TERCERO. La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, precitada reconoce, en su artículo 18.1, el derecho de las personas físicas y jurídicas a acceder a la información pública, entendida ésta, según el artículo 17.2 de la misma Norma Foral, como: "(...) *cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones*".

Beraz, arauak informazio publikoa

Por tanto, la norma delimita el ámbito material



eskuratzeko eskubidearen eremu materiala mugatzen du, haren kontzeptu zabal batetik abiatuta, baina haren irismena mugatzen du, eta haren izaera publikoarekin lotutako bi baldintza betetzea eskatzen du: (a) foru-arauak behartutako erakunderen baten esku egotea, eta (b) esleitu zaizkion funtzioak eta eskumenak gauzatzean egina edo lortua izatea.

LAUGARRENA. Gaiaren funtsari dagokionez, gogorarazi behar da kasu honetan eskatutako informazioa Bizkaiko Foru Aldundiak 2016 eta 2020 bitartean udal-tasa bat kobratzeko arrazoian edo arrazoibidean zehazten dela, Udalaren Osoko Bilkurak 1990. urtean bi erakundeen artean sinatutako lankidetzahitzarmena eskatuko lukeen baimenik ez dagoelako.

Administrazioak ez du eskaera onartzen, otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 22 c) artikuluan ezarritakoaren babesean, ulertu baitu 17.2 artikuluan jasotako eskubidea ez dela hedatzen alderdi batek eskatutako txosten juridikoak egitera.

Hala, 22. artikulua horrek arautzen ditu informazio publikoa eskuratzeko eskaerak izapidetzea ez onartzeko arrazoiak, eta c) letran sartzen du informazio hori zabaltzeko aurretiazko ekintza bat edo berregiteko prozesu bat behar duen beste edozein informazio.

Erreklamazioari egindako alegazio-idazkian, Administrazioak argudiatzen du aipatutako 22. artikulua aurreikusi egiten duela ez onartzea izapiderako informazio publikoa eskuratzeko eskaerak, baldin eta horien berri ematea ezinezkoa bada aldez aurretik birprestaketa-prozesurik egin gabe, eta baldintza hori betetzen dela eskatutako informazioa espresuki egin behar denean erantzuna eman ahal izateko, hainbat informazio-iturriren bidez, irispide-eskubidea ez baita iristen herritarrek eskatuta,

del derecho al acceso a la información pública a partir de un concepto amplio de ésta, pero acota su alcance exigiendo la concurrencia de dos requisitos vinculados con su naturaleza "pública": (a) que se encuentre en poder de alguna de las entidades a las que la Norma Foral obliga, y (b) que haya sido elaborada u obtenida en el ejercicio de las funciones y competencias que tiene encomendadas.

CUARTO. Respecto al fondo del asunto, cabe recordar que en el presente caso la información solicitada se concreta en el motivo o razonamiento que sustente el cobro de una tasa municipal por parte de la Diputación Foral de Bizkaia durante el período comprendido entre 2016 y 2020, ante la inexistencia de la autorización del Pleno del Ayuntamiento que exigiría el convenio de colaboración firmado entre ambas instituciones en el año 1990.

La Administración inadmite la solicitud al amparo de lo establecido en el artículo 22 c) de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, en el entendimiento de que el derecho contemplado en el precitado artículo 17.2 no se extiende a la elaboración de informes jurídicos a instancia de parte.

El citado artículo 22 regula las causas de inadmisión a trámite de las solicitudes de acceso a la información pública, incluyendo en su letra c) "*Cualquier otra información que para su divulgación requiera una acción previa o un proceso de reelaboración.*"

En su escrito de alegaciones a la reclamación, la Administración argumenta que el antedicho artículo 22 prevé la inadmisión a trámite de aquellas solicitudes de acceso a información pública cuya divulgación no sea posible sin un proceso previo de reelaboración, entendiéndose que tal condición concurre cuando la información solicitada haya de ser elaborada expresamente para poder ofrecer la respuesta, mediante el uso de distintas fuentes de información, dado que el derecho de acceso no alcanza la elaboración de



Administrazioak txostenak egiteko eginkizunera.

informes por parte de la Administración a petición de la ciudadanía.

BOSGARRENA.- Ebazpenean alegatutako eskaera ez onartzeko arrazoia ikusita, beharrezkoa da berregitearen kontzeptua interpretatzea, eskatutako informazioa eskuratu ahal izateko ariketa hori egin behar ote zen erabakitzeko.

QUINTO.- A la vista del motivo de la inadmisión de la solicitud alegado en la resolución, resulta necesario abordar la interpretación del concepto de reelaboración, a fin de determinar si el acceso a la información solicitada requería tal ejercicio.

Kontzeptuaren definizio ofiziala abiapuntutzat hartuta, berregitea da, Hizkuntzaren Errege Akademiaren hitzetan, “zerbait berriro ere lantzea”, eta lantzea terminoaren bigarren adiera “zerbait konplexua asmatzea” da. Beraz, baldintza hori eska daiteke ez onartzeko arrazoia gertatzen dela pentsatzeko.

Tomando como punto de partida la definición oficial del concepto, reelaborar es, en palabras de la Real Academia de la Lengua, “volver a elaborar algo”, mientras la segunda acepción del término elaborar es “inventar o idear algo complejo”. Por lo tanto, esta es la condición exigible para considerar que concurre la causa de inadmisión.

Interpretazio zabalegiak edukiz hustuko luke 18.1 artikuluan, 17.2 artikuluekin lotuta, zehatutako eskubidea; izan ere, datuen agregazio hutsa edo datuen tratamendu minimoa berregitea dela uste izanez gero, murriztu egingo litzateke informazioa eskuratzeko eskubidea, dokumentazio edo datu gordinera mugatuta.

Una interpretación excesivamente extensiva vaciaría de contenido el derecho sancionado en el precitado artículo 18.1, en relación con el 17.2, pues si se considerara que la mera agregación de datos, o el mínimo tratamiento de los mismos, constituye una reelaboración, quedaría cercenado el derecho de acceso a la información, limitado a la documentación o al dato en bruto.

Ez onartzeko arrazoi gisa berregitea modu mugatuan interpretatu behar da, eta beharrezkoa da aplikagarritzat jo ahal izateko eskatutako informazioa, nahiz eta eskaera jasotzen duen organismoaren jardun-eremu funtzionalekoa izan, berariaz egin behar dela, eta hainbat informazio-iturritara jo behar dela, edo erakunde horri ezinezkoa zaiola informazio hori ematea, informazioa ateratzeko eta ustiatzeko behar diren baliabide teknikoak ez dituelako.

La reelaboración como motivo de inadmisión ha de ser interpretado de forma limitada, siendo necesario para que pueda considerarse aplicable que la información solicitada, aun cuando pertenezca al ámbito funcional de actuación del organismo receptor de la solicitud, deba ser elaborada de manera expresa, debiendo acudir a varias fuentes de información, o que a dicho organismo le resulte imposible facilitarla por no disponer de los medios técnicos necesarios para extraerla y explotarla.

Justizia auzitegiek kontzeptu hori hainbat erabakitan interpretatu dute. Hona hemen adibide batzuk:

El concepto ha sido interpretado por los Tribunales de Justicia en numerosos pronunciamientos. Sirvan como ejemplos:

Auzitegi Nazionaleko Administrazioarekiko Auzien Salaren urtarrilaren 24ko 75/2017 epaiak (63/2016 apelazio-errekurtsoa) honako gogoeta hau jasotzen du: “*Informazioa*

La Sentencia 75/2017, de 24 de enero, de la Sala de lo Contencioso Administrativo de la Audiencia Nacional (Recurso de apelación 63/2016) recoge la siguiente consideración:



begiratzeko eskubidea ezin daiteke nahastu erakunde publiko batek partikular batek eskatutako txostena egiteko eskubidearekin. Aipatutako 18.1.c) artikulua horregatik onartzen du eskabide bat ez onartzeko aukera, eskatzen den informazioa, eskuratzeko zaila izateagatik, egin eta prestatu egin behar bada. Baina horrek ez du esan nahi interpretazio zabal baten xede izan behar duenik. Horrenbestez, berdin da informazio hori administrazioaren edo eman behar duen erakunde publikoaren esku egotea. Eta modu horretan interpretatu behar da legearen 13. artikulua”. Bestela, aldatu egingo litzateke lege horren xedea eta espiritua; izan ere, ez dirudi informazio publikorako eskubidea bihurtu duenik eskatutako txosten bat lortzeko eskubide, aldez aurretik administrazio-prozedura bat izapidetu gabe eta prozedura horri amaiera emango dion ebazpena prestatzeko helburuarekin (30/92 Legearen 82. artikulua).”

Eta 54/2019 Epaiak, maiatzaren 8koak, Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegi Zentralarenak, Seigarren Oinarri Juridikoa duenak, informazio-eskaerak ez onartzei buruz, aldez aurretik berriz egin beharragatik, hau baieztatzen du: “Administrazioak eskatutako informazioa badu eta antolatu baino egin behar ez bada, ez da berregite-ustezkoan sartuko. Berregin behar da, ordea, administrazioaren datu batzuetatik abiatuta, administrazio horrek txostena egitea nahi bada (...)”.

SEIGARRENA.- Aurrekoa kontuan hartuta, eta ez onartzeko arrazoen interpretazioak murriztailea eta proportzionatua izan behar duela errepikatu arren, behar bezala egiaztatuta geratu behar du, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatuta geratu behar baitu, Batzorde honen ustez, aztertzen ari garen erreklamazioak informazioa berriz lantzea eskatzen duen eskaera baten aurrean jartzen gaitu.

“Pero el derecho a la información no puede ser confundido con el derecho a la confección de un informe por un órgano público a instancia de un particular. Es por ello por lo que el mencionado art.18.1.c permite la inadmisión de una solicitud cuando la información que se solicita requiere una elaboración y tarea de confección por no ser fácilmente asequible acceder a ella, pero sin que ello signifique deba ser objeto de una interpretación amplia. Por consiguiente, es indiferente que dicha información obre en poder de la Administración o ente público encargada de dispensarla. Y en estos términos hay que interpretar el art.13 de dicha Ley. De lo contrario se estaría alterando el objeto y espíritu de dicha Ley, que no parece haber convertido el derecho a la información pública en el derecho a obtener un informe solicitado sin previa tramitación de un procedimiento administrativo y con la finalidad de preparar la resolución que ponga término al mismo (art. 82 de la Ley 30/92).”

Y la más reciente Sentencia 54/2019, de 8 de mayo, del Juzgado Central Contencioso-administrativo nº 2, cuyo Fundamento Jurídico Sexto, respecto a la inadmisión de solicitudes de información por necesidad de reelaboración previa, asevera: “Si la Administración requerida dispone de la información, tal como se solicita, y se requiere a lo sumo de su ordenación, no se trataría de un supuesto de reelaboración. Por el contrario, sí se trataría de un supuesto de reelaboración si lo que se pretende es que a partir de los datos de que disponga la Administración la misma elabore un informe.”

SEXTO.- Sentado lo anterior, y aun reiterando que la interpretación de las causas de inadmisión ha de ser restrictiva y proporcionada, debiendo quedar suficientemente acreditadas, por cuanto debe quedar garantizado el derecho de acceso a la información pública, esta Comisión considera que la reclamación que nos ocupa nos sitúa ante una solicitud cuyo cumplimiento exige una reelaboración de información, por los motivos que pasamos a exponer.



Erreklamatzailak eskatutako informazioa Foru Aldundiak udal zerbitzuaren tasa bat kobratzearen oinarrian dagoen arrazoian edo argudioan zehazten da. Eta 1990eko apirilaren 9an Erandioko Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak sinatutako lankidetzahitzarmenaren edukiaren ezagutzatik abiatzen da. Hitzarmenaren helburua, lehenengo hizpaketaren arabera, 1990eko ekitaldian estolderia zerbitzua emategatik udal-tasa biltzeko zerbitzua emateko baldintzak ezartzea eta arautzea da. Hala ere, Bosgarren Xedapenak hitzarmenaren luzapena aurreikusten du, Udalak eskatuta, Foru Aldundiari jakinarazi beharko zaion osoko bilkuraren akordioaren bidez.

La información solicitada por el ahora reclamante se concreta en la razón o argumento que sustenta el cobro de una tasa de servicio municipal por parte de la Diputación Foral. Y parte del conocimiento del contenido del Convenio de colaboración firmado en fecha 9 de abril de 1990 por el Ayuntamiento de Erandio y la Diputación Foral de Bizkaia, cuyo objeto, según su Estipulación Primera, es el establecimiento y regulación de las condiciones de prestación del servicio de recaudación de la tasa municipal por prestación del servicio de alcantarillado durante el ejercicio 1990, no obstante lo cual, la Disposición Quinta prevé su prórroga a petición del Ayuntamiento, mediante acuerdo plenario que deberá ser comunicado a la Diputación Foral.

Aipatutako lankidetzahitzarmenaz gain, erreklamaziogilearen esku dago Erandioko Udaleko idazkariaren idazkia, 2019ko azaroaren 14koa, zeinaren bidez jakinarazten baitzaio udal administrazio horrek 2019ko ekitaldian ez zuela jarduketarik egin aipatutako hitzarmenaren bosgarren estipulazioan ezarritakoari dagokionez, eta honako hau gehitzen da:

Además del citado convenio de colaboración, obra en poder del reclamante escrito emitido por el secretario del Ayuntamiento de Erandio, de fecha 14 de noviembre de 2019, por el que se le informa que dicha Administración municipal no realizó a lo largo del ejercicio 2019 ninguna actuación con relación a lo establecido en la citada estipulación quinta del convenio de referencia y se añade:

“Aurrekoa alde batera, Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzen Sailak haren lehenengo hizpaketan xedatutakoa betetzen jarraitzen du, eta, ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiak Erandioko Udalari 2019ko ekitaldian estolderiaren zerbitzua emategatiko udal-tasa biltzeko zerbitzua ematen dio”.

“Con independencia de lo anterior, por parte del Departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Bizkaia se sigue dando cumplimiento a lo establecido en la estipulación primera del mismo, y en consecuencia la Diputación Foral de Bizkaia se encuentra prestando al Ayuntamiento de la anteiglesia de Erandio el servicio de recaudación de la tasa municipal por la prestación del servicio de alcantarillado durante el ejercicio 2019.”

Aipatutako informazioa ikusita, argi dago erreklamatzailaren interesa tasa kobratzeko arrazoia ezagutzea dela, berak baieztatutako Udalbatzaren baimenik ezaren aurrean.

A la vista de la información citada, resulta evidente que el interés del reclamante reside en conocer la razón del cobro de la tasa, ante la, por él afirmada, falta de autorización del Pleno del Ayuntamiento.

Beraz, egin den moduan, ez onartzeko arrazoia erreklamazio hau izan den informazio-eskaera ez da betetzen goian aipatutako dokumentazioa eskuratuta; aitzitik,

Por tanto, en los términos en los que está formulada, la solicitud de información cuya inadmisión trae causa de la presente reclamación no se ve satisfecha mediante el



Foru Aldundiak txosten juridiko bat egin beharko luke, goian aipatutako aldian diru-bilketako zerbitzua emateari eusteko arrazoia argudiatzeko.

Foru Aldundiak alegatu bezala, eta Gardentasun Batzorde honek bat egiten duenez, informazio publikoa eskuratzeko eskubidea ezin da nahastu Administrazioak, herritarrek eskatuta, izaera tekniko, juridiko edo ekonomikoko txostenak egiteko eskaera- eskubiderik ez izatearekin.

Foru Aldundiak jakinarazi du eskatutako informazioa ez dagoela bere esku, eta berariaz egin behar dela, hainbat informazio-iturriren bidez, zehazki, lankidetzaz-hitzarmena eta horrelako tresna juridikoei aplikatu beharreko legeria erkatuz eta aztertuz, Udalaren Osoko Bilkurak alegatutako baimenik eza berretsiz eta, hala badagokio, ez-etortze horrek ekar litzakeen ondorio juridikoak adieraziz.

Horrek esan nahi du, arrazoitutakoa oinarri hartuta, Administrazioak aldeztu aurretik ekintza bat egin behar duela, 1/2016 Foru Arauaren 22.c) artikulua araberak, erreklamatzailerari eskatutako informazioa eman ahal izateko. Beharrezkoa litzateke eskatutako baldintzetan eskura ez dagoen informazio bat egitea, hau da, eskatzen den informazioa egiteko, gaur egun ez dagoen txosten juridiko bat idatzi behar da.

Ondorioz, Foru Aldundiak adierazi eta Batzorde honek bat egiten duen bezala, planteatutako eskaerak informazioa berriz lantzeko aurretiazko lana eskatzen duenez, 1/2016 Foru Arauaren 22.c) artikulua aplikazio-eremuan sar daiteke.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren arloko Erreklamazio Batzorde honek, transkribatu

acceso a la documentación arriba referida, sino que sería necesaria la elaboración, por parte de la Diputación Foral, de un informe jurídico que argumentara la razón del mantenimiento de la prestación del servicio de recaudación durante el período arriba citado.

Como alega la Diputación Foral y esta Comisión de Transparencia comparte, el derecho de acceso a la información pública no puede ser confundido con un inexistente derecho de solicitud de elaboración de informes de carácter técnico, jurídico o económico por parte de la Administración a petición de la ciudadanía.

La Diputación Foral ha comunicado que la información solicitada no está a su disposición, habiendo que realizar una elaboración expresa, mediante el análisis de diversas fuentes de información, en concreto el cotejo y análisis del Convenio de colaboración y la legislación aplicable a este tipo de instrumentos jurídicos, junto a la confirmación de la alegada ausencia de autorización por parte del Pleno del Ayuntamiento y las consecuencias jurídicas que dicha ausencia, en su caso, pudiera acarrear.

Esta circunstancia implicaría, con base en lo razonado, la necesidad de una acción previa por parte de la Administración, en términos del artículo 22.c) de la Norma Foral 1/2016, al objeto de poder facilitarle la información solicitada al reclamante. Resultaría necesario elaborar una información de la que no se dispone en los términos solicitados, es decir, la información que se solicita requiere una elaboración, una redacción de un informe jurídico inexistente a la fecha.

En consecuencia, tal y como manifiesta la Diputación Foral y comparte esta Comisión, dado que la solicitud planteada exige una labor previa de reelaboración de la información, resulta encuadrable en el ámbito de aplicación del artículo 22.c) de la Norma Foral 1/2016.

Por todo lo cual, esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia,



dugun ebazpenean hartutako irizpidea errepikatuz, honako hau erabaki du:

reiterándose en el criterio adoptado en la resolución que hemos transcrito, acuerda:

EBAZPENA

RESOLUCIÓN

Lehena.

jaunak eskatutako erreklamazioa ezestea. Erreklamazio hori Bizkaiko Foru Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren abenduaren 23ko 67/2021 Ebazpenaren bidez erabaki zen.

Primero. Desestimar la reclamación promovida por contra inadmisión a trámite de su solicitud de información, acordada mediante Resolución 67/2021, de 23 de diciembre, de la Dirección General de la Hacienda Foral de Bizkaia.

Bigarrena. Ebazpen hau errekurtsogileari eta Ogasun eta Finantza Saileko Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari jakinaraztea. Halaber, Ahalduen Nagusiaren Laguntza Unitateko Estrategia Digital eta Korporatiboko Kabineteko Gobernu Onaren eta Gardentasunaren Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaio.

Segundo. Notificar esta resolución al recurrente y a la Dirección General de Hacienda del Departamento de Hacienda y Finanzas. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Gabinete de Estrategia Digital y Corporativa de la Unidad de Apoyo del Diputado General.

Hirugarrena. Ebazpen honek, behin betikoa denak, administrazio-bidea agortzen du. Dena dela, beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Salan, jakinarazpena egiten denetik eta BI (2) HILABETEKO epearen barruan.

Tercero. La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016Foru Dekretuaren (Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen eta Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duena) 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98Legearen 10. eta 46. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

